



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO URTARRILAREN 25EAN
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/12/29.

Batzarkideek, 2020ko abenduaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- HAASETAKO A-81 (ZUBIETAKO KASKOA) EREMUKO HEU 81.5 EXEKUZIO UNITATEAN BIZITZA BAKARREKO ETXEA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2018-0436

MIKEL URDIAIN SOTIL jaunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitatean bizitza bakarreko etxea eraikitzeke udal baimena eskatu du.


OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	654.765,21 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabeko hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.629,55 € Fidantza (%120): 1.955,46 €

XEHETASUN-AZTERKETA

Plenoak 2019ko otsailaren 26an onartu zuen behin betikoz Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 exekuzio unitateari dagokion Xehetasun-Azterketa.

BIRPATZELAZIO PROIEKTUA

Alkateak, 2020ko urriaren 8an, 2020/0784 zenbakidun dekretuaren bidez, Hiri



Usurbilgo Udala

Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitateko Birpartzelazio Proiektua (2020-10-06) behin betikoz onartu zuen honako baldintzarekin: Birpartzelazio Proiektua Jabetza Erregistroan inskribatu aurretik, MIKEL URDIAIN SOTIL jaunak 12.737,32 euro ordaindu beharko dizkio Usurbilgo Udalari %15eko lagapen bezala.

Udal kontuhartzaitzak, ziurtatu du MIKEL URDIAIN SOTIL jaunak Usurbilgo Udalari %15eko lagapen bezala ordaindu beharreko 12.737,32 euro ordaindu dizkiola.

Birpartzelazio Proiektua Jabetza Erregistroan inskribatutakoan, 586,30 m² azalera duen A2 partzela, Usurbilgo Udalaren jabetzan geratuko da.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2020ko abenduaren 16an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkateari
OBRA HAUNDIAK

**ZUBIETAKO HEU 81.5 EXEKUZIO UNITATEAN BIZITZA BAKARREKO
ETXEA ERAIKITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUARI TXOSTENA**

KOKAPENA: Irigoien kalea 14, Zubieta, Usurbil

ESKATZAILEA: Mikel Urdiain Sotil

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2018-436

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 654.765,21 euro (PEM)

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 1.629,55 €. Fidantza (%120): 1.955,46 €

AURREKARIAK

- 2018ko abuztuaren 29an interesatuak proiektu basikoa aurkeztu du.
- 2020ko irailaren 7an interesatuak exekuzio proiektua aurkeztu du
- 2020ko azaroaren 10ean udal arkitektoaren txostena proiektuaren hainbat zuzenketa eskatuz
- 2020ko azaroaren 17an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du
- 2020ko abenduaren 3an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du

Erlazionatuak:

- HZ.01/2018-428: Zubietako HEU 81.5 exekuzio unitateko Xehetasun Azterketa

TXOSTENA

Amaia Arana Corral arkitektoak, Mikel Urdiain Sotilen izenean, Zubietako HEU 81.5 Exekuzio Unitatean bizitza bakarreko etxea eraikitzeke Exekuzio Proiektua aurkeztu zuen. Behean izenpetzen duen teknikariak exekuzio proiektua ontzat eman ahal izateko honako baldintza hauek jarri



Usurbilgo Udala

zituen:

- “Txoko” erabilera kentzea
- Estalkiaren % 40 malda zehaztea
- Lursailaren itxitura AASSTB-en 37. artikuluan jartzen duenera egokitzea

Aurrekarietan esan bezala azaroaren 17an eta abenduaren 3an, aipatutako baldintza horiei erantzuna emateko dokumentazio osagarria aurkeztu du Amaia Arana arkitektoak. Eskaera orriarekin batera erabilera eta azalaren fitxa aldatua, planoak eta aurrekontua aurkeztu ditu, dena teknikari gaituak izenpetua, eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia (COAVN 2020-11-17 eta COAVN 2020-12-02).

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, honakoa esan daiteke:

- BALDINTZAK BETETZEA: Aurreko txostenean ezarritako baldintzak bete direla esan behar da.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Exekuzio Proiektuaren aurrekontuan barneratzen denez, Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.629,55 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.955,46€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- ZUINKETA AKTA: Obrari hasiera eman ahal izateko, zuinketa akta izenpetu beharko da.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obraren egikaritzan lurzoru publikoa okupatu beharko balitz, dagokion baimena eskatu beharko da.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, Zubietako HEU 81.5 Exekuzio Unitatean Bititza Bakarreko Etxea Eraikitzeke Exekuzio Proiektuari, eta ondorioz, obra baimen eskaerari **ALDEKO** txostena idazten zaio.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

UDAL ARKITEKTOA
Amaia Illarreta Izeta

Exekuzio Proiektua aztertu ostean, udal aparejadoreak, Garazi Lizaso Manterola andereak, 2021eko urtarrilaren 8an txosten hau eman du:



Usurbilgo Udala

OBRA HANDIAK
ZERBITZUEN TXOSTENA
ZUBIETAKO HEU 81.5 EXEKUZIO UNITATEAN
BIZITZA BAKARREKO ETXEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA

KOKAPENA: Irigoien kalea 14, Zubieta auzoa. Usurbil.
ESKAERA DATA: 2020ko irailaren 7a
ESKATZAILEA: Mikel Urdiain Sotil
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2018-0436

Zubieta auzoko Irigoien kalea 14 zenbakian bizitza bakarreko etxea eraikitzeke proiektua dela-eta, udal zerbitzuei dagokion lotuneei buruzko txostena eskatu da Hirigintza Saitetik.

Udal sareen GISean kontsultatu da ur horniduraren zein ur zikinen eta euri uren kokapena zein den eraikina eraiki asmo duten partzelarekiko. Honakoa ikusi da:



Beraz, partzelak ondorengo loturak ditu udal sareetara:

- Ur zikinak: Irigoien eta Barazar kalean udal sarera lotuneak ditu
- Euri urak: Irigoien eta Barazar kalean udal sarera lotuneak ditu
- Ur-hartunea: ur edangarriaren saretik lotunea du

Amaia Arana Corral eta Ignacio del Prim arkitektoen proiektu tekniko sinatuan zera aztertu ahal izan da:

- Saneamendua modu berezian lotuko dute udal sarera.

Ur zikinak: Barazar kalera isuriko dituzte, ur zikinen udal sarera lotuko dituzte, modu berezian.



Euri urak: Barazar kalera isuriko dituzte, euri urendal sarera lotuko dituzte, modu berezian.



Usurbilgo Udala

- Ur erangarriaren ur-hartunea Irigoien kaleko 16 zenbakiko eraikinaren albotik egingo dela.

Beheko irudiak 2020ko irailaren 7an EHAEO ikus-onetsitako proiektu teknikoko 06.01 eta 06.04 planoen zatiak dira, hau da, ur edangarriaren ur-hartunearenak eta saneamendu sareko loturenak, hurrenez hurren:



Ur edangarriaren hornidura sareko ur-hartunearen zein saneamendu saretarako loturen baldintzak hurrengoak izatea proposatzen da:

- Instalatuko diren hodiak, gaur egun dauden hodian azpitik pasako dira (saneamendua, ur sarea, herriko argi sarea eta abarren azpitik hain zuzen ere).
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- Obran egindako edozein aldaketa, espresuki onartu beharko du Usurbilgo Udalak.
- Ez dira kaltetuko inguruko landaretza, hiri tresneria, espaloian dauden kutxeta eta erregistroen tapak edota edozein motatako udal-erakuntzak.
- Hondatzen diren materialak birjarriko dira.

Ur edangarria:

- - Hartunea burutuko da, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko dokumentuko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoaren adieraziko duten tokian.
- ARIES markako kontagailua eta IZAR irrati bidezko irakurketa modulua jarriko dira, gehienez hazbete batekoa (1").
- Ur kontagailua ur sare publikoaren alboan kokatuko da, udal zerbitzu teknikoaren adierazioko duten tokian.
- Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik. Giltzak



Usurbilgo Udala

- TMM PN60 Manterola etxeokak izango dira.
- Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
- Kontagailua Pan Inter kutxatila baten barruan kokatuko da, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko adreiluzko nitxoa eraikiko da.
- Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak onartu eta zigilaturiko "edateko uraren instalazioaren ziurtagiria" aurkeztuko da. Hornitzailea Usurbilgo Udala.
- Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea

Saneamendua:

- Ur zikinak ur zikinen udal sarera lotuko dira, modu berezian.
- Euri urak euri uren udal sarera lotuko dituzte, modu berezian.
- Norabide aldaketa bakoitza hormigoizko kutxeta bidez egingo da.
- Saneamenduko lotunea hormigoizko kutxeta baten bidez egingo da eta hoditeria PVC zurruna motatakoa izango da.

Usurbilen, 2021eko urtarrilaren 8an
Zerbitzuak eta Mantenua Saileko burua

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MIKEL URDIAIN SOTIL jaunari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitatean bizitza bakarreko etxea eraikitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Amaia Arana eta Ignacio del Prim arkitektoek 2020ko irailean idatzitako Oinarrizko eta Exekuzio Proiektuari (EHAEO 07/09/2020), eta aurkeztutako dokumentazio osagarriari (EHAEO 17/11/2020 eta EHAEO 01/12/2020) egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.629,55 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.955,46 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.955,46 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2018-0436*" jarriaz kontzeptuan.



Usurbilgo Udala

- **Obrak hasi aurretik**, obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da udal aparejadorearekin. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- Xehetasun-Azterketa ezarritakoa kontutan izanik, sotoan “txoko” erabilera ez da onargarria.
- Estalkiaren tratamenduari eta lursailaren itxiturari dagokionez, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Araudiko 37. artikulua ezarritako bete beharko da.
- Udal zerbitzuen lotuneei dagokionez, udal aparejadoreak ezarritako baldintza beteko dira:
 - Instalatu diren hodiak, gaur egun dauden hodian azpitik pasako dira (saneamendua, ur sarea, herriko argi sarea eta abarren azpitik hain zuzen ere).
 - Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
 - Obraren egindako edozein aldaketa, espresuki onartu beharko du Usurbilgo Udala.
 - Ez dira kaltegarri inguruko landaretza, hiri tresneria, espaloian dauden kutxeta eta erregistroen tapak edota edozein motatako udal-eraikuntzak.
 - Hondatzen diren materialak birjarriko dira.

Ur edangarria:

- Hartunea burutuko da, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzako dokumentu arauen arabera, udal zerbitzu teknikoaren adieraziko duten tokian.
- ARIES markako kontagailua eta IZAR irrati bidezko irakurketa modulua jarriko dira, gehienez hazbete batekoa (1”).
- Ur kontagailua ur sare publikoaren alboan kokatuko da, udal zerbitzu teknikoaren adierazioko duten tokian.
- Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik. Giltzak TMM PN60 Manterola etxeak izango dira.
- Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
- Kontagailua Pan Inter kutxatila baten barruan kokatuko da, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko adreiluzko nitxoak eraikiko dira.
- Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak onartu eta zigilatutako “edateko uraren instalazioaren ziurtagiria” aurkeztuko da. Hornitzailea Usurbilgo Udala.
- Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea

Saneamendua:



Usurbilgo Udala

- Ur zikinak ur zikinen udal sarera lotuko dira, modu bereizian.
 - Euri urak euri uren udal sarera lotuko dituzte, modu bereizian.
 - Norabide aldaketa bakoitza hormigoizko kutxeta bidez egingo da.
 - Saneamenduko lotunea hormigoizko kutxeta baten bidez egingo da eta hoditeria PVC zurruna motatakoa izango da.
- Telekomunikazio Azpiegituren proiektua aurkeztuko da.
 - Ezinbestean indarrean dagoen araudia bete beharko da. Exekuzio Proiektuan aztertutako dira zehatzago EKT, RITE eta gainontzeko araudi teknikoaren betekizunak.
 - 68/2000 Sar-irten erraztasunari buruzko Dekretuak ezarritakoak bete beharko dira.
 - Urriaren 21eko 250/2003 Dekretuaren arabera, Eraikinaren Liburua osatu beharko da, berau jasotzeko dagokion armairua prestatuz. Armairuaren gutxieneko neurriak honako hauek izango dira: 0,50m²ko planta-azalera, eta metro bateko altuera. Suaren eta hezetasunaren aurkako materialez egina beharko da, sarrailadun ate eta guzti. Eramateko modukoa bada, eraikineko elementu finkoei behar bezala lotuta egon beharko du, mugitu ez dadin. Armairu edo gune hori eraikinaren alde edo toki komunean jarriko da, erraz eskuratzeko moduan, baina ez da gela hezeetan edo instalazioetarako baino ez direnetan ipini beharko da.
 - AASS-etako Egoitzazko Eraikuntzen Ordenantzak bete beharko dira.
 - Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
 - Obra baimenaren epeak:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: 2 urte.
 - Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko



Usurbilgo Udala

ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
- Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lurralde kontribuzioaren alta (U-4).
- Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrairindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- KIROL JARDUEREI IZENDATUTAKO 2020KO DIRULAGUNTZEN ZURIKETA, URTE NATURALAK HARTZEN DITUZTENENTZAT.

Esp.:KI.01/2020-0001



Usurbilgo Udala

Ikusirik

2020ko kirol arloko egitasmoak burutzeko diru laguntza oinarriak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 7an argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanez.

Epea 2020ko otsailaren 04ean amaitu ondoren, lerro bakoitzari zegozkien diru-kopuruak erabaki ziren eta alegazioak egiteko epea zabaldu zen.

Alegazio-epea amaitu ondoren eta alegaziorik izan ez zenez,-aurreneko zatia eskatu zuten elkarteei %50a eman zitzaion.

2020 urte naturalekoak hartzen dituzten jarduerak zuzitzeko, elkarteek 2021ko urtarrilaren 8 arteko epea zuten.

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, zuriaketa hauek aztertu ostean, dagokion txostena egin du

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- 2020an kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO 2020/01/07).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2020ko kirol egitasmoak garatzeko eta urte naturala hartzen duten diru-laguntzetako bigarren ordainketa hauek onartzea.

1.- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenatarako

Baxurde Txiki	520,28€
Buruntzazpi	1.194,61 €
Beterri Sub	105,05€
Usurbil JC	1.194,39 €
Zubieta PE	1.063,46€

2.- Kirol egokitutako jardueren dirulaguntza zuzenentzako:

Pagazpe pilota elkarte	977,20 €
------------------------	----------

3.- Kultur eta bestelako elkarten kirol jardueretarako eta bi urte naturalak hartzen dituzten diru-laguntzetako bigarren ordainketa hau onartzea.



Usurbilgo Udala

San Praixku Guraso Elkarteak zuriketa egin duenean, gastuak aurreikusitakoak baino txikiagoak izan dira eta egokitu zaion diru laguntza aurreikusitako baino txikiagoa izan da, hori dela eta, diru laguntzako 1.zatiko zati bat itzuli egin behar du, 60,00 €.

Bigarrena: Gastu hauek aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1 4300 481 341 00 01 Kirol tadeen ohiko diru-laguntza zuzenak (A2 2020)

1 4300 481 341 00 06 Kirol egokitua (A4-2020)

1.4300.481.341.00.07 Kirol elkarte ez direnen kirol jarduerak (A5 2020)

Hirugarrena: Interesatuei akordioaren berri ematea.

Laugarrena: Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

4.- GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK GARATZEKO 2020KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA.

Esp.zk.: GZ.42/2019-0466

1.- Espedienteei buruzko datuak


Espedienteak:

ADEMG	(GZ.29/2020-0074)	ATECE	(GZ.29/2020-0015)
AECC	(GZ.29/2020-0107)	ATZEGI	(GZ.29/2020-0084)
AGI	(GZ.29/2020-0016)	GIP. ELIKAGAIEN BANKUA	(GZ.29/2020-0113)
AGIAC	(GZ.29/2020-0066)	GIPUZKOAKO ITXAROPEN TELEFONOA	(GZ.29/2020-0064)
AGIFES	(GZ.29/2020-0077)	IZAN FUNDAZIOA	(GZ.29/2020-0007)
AGIPASE	(GZ.29/2020-0062)	ORTZADAR	(GZ.29/2020-0087)
ALCER	(GZ.29/2020-0076)	PAUSOKA ELKARTEA	(GZ.29/2020-0067)

2.- Ikusirik

2020ko urtarrilaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2020. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzen oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko uztailaren 14an egindako bilkuran, 2020. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzak behin betikoz onartu zituen.



Usurbilgo Udala

Urtea amaiturik, elkarte guztiek oinarrietan adierazitako justifikazioa aurkeztu dute.

Laburtuz,

TALDEAREN IZENA	ONARTUTAKO LAGUNTZA % 100	1. ORDAINKETA %50
1. ADEMG (Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarte) (Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarte)	347,60 €	173,80 €
2. AECC (Minbiziaren aurkako elkarte)	375,00 €	187,50 €
3. AGI (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarte)	916,41 €	458,20 €
4. AGIAC (Gipuzkoako antikoagulatu elkarte)	632,01 €	316,00 €
5. AGIFES (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarte)	790,01 €	395,00 €
6. AGIPASE (Krisi egoeran dauden Gipuzkoako familiei laguntzeko elkarte)	916,41 €	458,20 €
7. ALCER (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	884,81 €	442,40 €
8. ATECE (Traumatismo Kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	726,81 €	363,40 €
9. ATZEGI (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarte)	1.264,02 €	632,01 €
10. GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	750,00 €	375,00 €
11. GIPUZKOAKO ITXAROPEN TELEFONOA	1.300,00 €	650,00 €
12. .IZAN FUNDAZIOA (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarte).	1.106,01 €	553,00 €
13. ORTZADAR ELKARTEA (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsonen zuzendua)	948,01 €	474,00 €
14. PAUSOKA ELKARTEA (Behar bereziak dituzten haurren guraso elkarte)	1.042,81 €	521,40 €

3.- Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2020an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak (GAO, 2020-01-07)

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

TALDEAREN IZENA

BIDERATU



Usurbilgo Udala

	BEHARREK OA
1. ADEMG (Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarte) (Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarte)	173,80 €
2. AECC (Minbiziaren aurkako elkarte) (Minbiziaren aurkako elkarte)	185,50 €
3. AGI (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarte) (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarte)	458,20 €
4. AGIAC (Gipuzkoako antikoagulatu elkarte) (Gipuzkoako antikoagulatu elkarte)	316,00 €
5. AGIFES (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarte) (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarte)	395,00 €
6. AGIPASE (Krisi egoeran dauden Gipuzkoako familiei laguntzeko elkarte) (Krisi egoeran dauden Gipuzkoako familiei laguntzeko elkarte)	458,20 €
7. ALCER (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte) (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	442,40 €
8. ATECE (Traumatismo Kraneo-enzefaliko eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarte) (Traumatismo Kraneo-enzefaliko eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	363,40 €
9. ATZEGI (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarte) (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarte)	632,01 €
10. GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	375,00 €
11. GIPUZKOAKO ITXAROPEN TELEFONOA	650,00 €
12. IZAN FUNDAZIOA (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarte) (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarte)	553,00 €
13. ORTZADAR ELKARTEA (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsoneizuzendua) (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsoneizuzendua)	474,00 €
14. PAUSOKA ELKARTEA (Behar bereziak dituzten haurren guraso elkarte) (Behar bereziak dituzten haurren guraso elkarte)	521,40 €

Bigarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: Diru-laguntza irekiak: Elkarteen asmoak: 1.8000.481.231.03.02.2020 (**A 373/2020**)

Hirugarrena: Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

Laugarrena: Kontuhartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:40etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.